

Hirugarren sektore sozialaren definiziora gerturatzea

HAUSNARKETARAKO DOKUMENTUA, EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE
SOZIALAREN LIBURU ZURIAREN ESPARRUAN

Bizkaiko hirugarren
sektoreko behatokia

2014ko otsaila
2019ko abenduan eguneratua

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



Hirugarren sektore sozialaren definiziora gerturatzea

HAUSNARKETARAKO DOKUMENTUA, EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE
SOZIALAREN LIBURU ZURIAREN ESPARRUAN

Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiko taldea

2014ko otsaila. 2019ko abenduan eguneratua

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



Aurkibidea

SARRERA.....	4
GERTURATZE TEORIKO KONTZEPTUALA DEFINIZIORA.....	4
Hirugarren Sektorearen definizioa:	4
Hirugarren Sektore Sozialaren definizioa:	9
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	14

SARRERA

Dokumentu honen helburua EAEn Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuriaren ikerketa-proiektuan onartutako Hirugarren Sektore Sozialaren definizioarekin lotuta gogoeta elikatzea da. Horrekin, lehen aldiz, hura osatzen duten erakundeen multzoa identifikatu, ezaugarri buruzko informazio kuantitatibo zehatza bildu eta sektorerako erronkez gain, 2019ko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Barometroak eta 2020ko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuriak biltzen dituztenak identifikatu nahi izan dira.

Sektoreko definizioekin lotuta oso garrantzitsuak diren lanen ekarpen nagusi batzuk bildu eta antolatu dira.

Dokumentuaren lehen zatia fenomenoaren hurbilketa teoriko-kontzeptualizat har daitekeenaz arduratu da eta bigarren zatia aipatutako ikerketako azterketa-helburuaren mugatze operatiboaren gidari izan nahi duten izaera operatiboko hainbat ohar biltzen ditu.

DEFINIZIORA EGINDAKO GERTURATZE TEORIKO KONTZEPTUALA

Hirugarren Sektorearen definizioa:

Hirugarren Sektorearen definizioa ematea ez da erraza, eta batez ere, adostasun argirik ez dagoen erakunde jakin batzuen inklusio- eta bazterketa-irizpideak zehazteko orduan.

Badirudi kontzeptua bazterrean geratutako definizioaren (hau da, Hirugarren Sektorea izango litzateke sektore publikoa -lehen sektorea- eta irabazi-asmoko sektorea -bigarren sektorea- ez den guztia) ezaugarriek mugatu izanak ere nabarmen eragin duela zehazgabetasunean. Gaiari buruz gogoeta egin eta teorizatu duten egileek ez dute lortu kontzeptu hauek ulertzeko modu bakar bat hitzartzea: Ekonomia Soziala, Hirugarren Sektorea, Irabazi Asmorik Gabeko Sektorea, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea... Hori bai, argi dago izendapenen aniztasunak agerian jartzen dituztela fenomenoaren aberastasuna eta horri behatzeko modu desberdinak.

Gizarte-ongizatea partekatutako erantzukizuna balitz bezala onartzera bideratutako eragileen arteko mugak eta gizarte erlazionala (Estatua, merkaturak, Hirugarren Sektorea...) deitutako horretan inplikaturakoak gero eta ikusezinago bihurtu diren agertokian, aurrez ikus daiteke aipatutako kontzeptuen inguruko elkarrizketa teorikoak gero eta nagusitasun eta konplexutasun handiagoa eskuratuko duela. Rodríguez Cabrero eta Marbán¹ irakasleek zehazgabetasun horri buruz hitz egin dute eta honako hau nabarmendu dute: "Hirugarren Sektoreko barne-mugaketaren eta Hirugarren Sektoreak merkataritza sektorearekin izandako zailtasunak, batez ere gizarte-ekonomiaren eta enpresa-fundazioen mugako eremuetan".

2007an martxan jarritako Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Liburu Zuriaren² proiektuaren baitan, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia taldeak Hirugarren Sektoreko erakundeekin eta sareekin partekatutako gogoeta-prozesua abiatu zuen definizioa bilatzeko. Ez zen fenomenoaren deskribapen zehatza eta eztaba daezina landu nahi izan, baizik eta batez ere izaera eragileko definizioa bilatu nahi izan zen, hau da, martxan jarritako ikerketetarako erreferentzia-oinarria finkatu ahal izateko definizioa.

Aipatutako prozesuan zehar, berrikusketa bibliografikoa egin zen eta fenomenoari eta horren definizioari buruzko ekarpen adierazgarrietako batzuk bildu eta antolatu ziren. Horiek bilatu nahi zen kontzeptualizatorako pistak eman zituzten.

¹ RODRÍGUEZ CABRERO, G. ETA MARBÁN, V. *Visión Panorámica del Tercer Sector Social en España*, hemen: Revista Española del Tercer Sector, 9.zk. Fundación Luis Vives fundazioa, Madril, 2008. Aldizkaria online eskuragarri webgunean: <<http://www.fundacionluisvives.org/servicios/publicaciones/rets/index.html>>

² BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2010.

Laburpen gisa³ esan daiteke bi ikuspegi nagusi daudela eta ikuspegi horiek aurrez aurre daudela tradizioz. *Ekonomia Sozialaren* ikuspegia, Europako tradizio kontinentalarekin lotuta, erakundeen dimentsio demokratikoa nagusitzen dena, eta *Irabazi Asmorik Gabeko Sektorearen* ikuspegia, tradizio anglosaxoia duena, irabazien banaketarik eza eta boluntariotzaren garrantzia agerian jartzen duena.

Horrela, erakundeen irabazi-asmorik eza bi ikuspuntutatik uler daiteke:

- Zentzu finalista kontuan hartzen duen ikuspegiarekin bat etorriz, erakundeak irabazi asmorik gabekotzat (**not for profit organizations**) hartzen dira behar sozialen asebetetzera bideratutako helburuak lortu nahi dituztenean, edo beste modu batera esanda, bazkideei edo taldeari zerbitzuak eskaintzeko helburua irabaziaren gainera jartzen denean.
- Bestalde, irabaziak ez banatzeko printzipioaren ikuspegitik (hori da zabalduen dagoena), erakundeek irabazi-asmorik gabeko izaera (**non-profit organizations**) izango dute, betiere, eratze-arauen arabera lortutako irabaziak hura kontrolatzen duten pertsonen artean edo legezko jabeak direnen artean banatzea debekatuta dutenean.

Ekonomia Sozialaren ikuspegiaren arabera, jatorria CIRIECekin lotuta egonik (Ekonomia Publiko, Sozial eta Kooperatiboari buruzko Ikerketaren eta Informazioaren Nazioarteko Zentroa), Hirugarren Sektorea zentzu zabalean hartu behar da, "sektore publikoarekin lotuta ez dauden erakunde multzo bat izango balitz bezala, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoekin eta bazkideen eskubide eta eginkizun berdintasunarekin. Irabazien jabetza- eta banaketa-erregimen berezia dute, eta ekitaldiko soberakinak erakundea hazteko eta bazkideei eta gizarteari zerbitzuak hobetzeko erabiltzen dituzte"⁴.

Nolabait, Ekonomia Sozialeko erakundeek kapitalismoaren mugei erantzun soziala ematen diete, betiere, gizarte-ongizatea eta berdintasuna sortzeko. Ikuspegi hori defendatzen duten egileen oinarritzko ideia honako hau da: Hirugarren Sektorearen eremuan (Ekonomia Sozial terminoa erabiltzen da Hirugarren Sektorearen sinonimotzat) ez dira sartzen not for profit erakundeak eta non-profit erakundeak.

Ildo beretik, Europako Batzordetik arlo hauek nabarmendu dira Ekonomia Sozialeko erakundeak bereizteko eta kapital-enpresetatik bereizteko: "kapitalaren gainera pertsona eta helburu soziala gailentzea"; borondatezko eta zabaldutako atxikimendua eta kideen kontrol demokratikoa oinarritik; kideen, erabiltzaileen edota interes orokorrekoen interesak bateratzea; solidaritate- eta erantzukizun-printzipioa defendatu eta aplikatzea; kudeaketaren autonomia eta botere publikoen independentzia"⁵.

Era berean, argitzailea dirudi Ekonomia Sozialaren Espainiako Enpresa Konfederazioaren definizioak (CEPES). Erakunde honek Ekonomia Sozialtzat hartzen du merkatuan edo sozietatean jarduten duen egungo ekonomia oro, bere formula juridikoa edozein izanda ere, hauen printzipioak partekatzen dituena: "erakunde demokratikoa", "pertsona kapitalaren aurretik", "jabetza horizontala", "irabaziak/emaitzak irizpide kolektiboarekin banatzea", "inguruarekin bereziki solidarioa" eta "kohesio soziala bultzatzen duena".

Horrela, **Ekonomia Sozialaren** baitan bi erakunde talde nagusi hartu ahal izango liriateke aintzat⁶:

³ BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Hirugarren Sektorearen definizioa bilatzeko prozesua Bizkaian*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2010 hemen aipatua: BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria* Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2010. Webgunean eskuragarri: <http://ideafix/Externo/ASPNET/Web_3sbizkaia/Editor/Archivos/Docs/PROCESO%20DE%20B%20C3%9ASQUEDA%20DE%20UNA%20DEFINIC%20C3%93N%20PARA%20EL%20TERCER%20SECTOR%20EN%20BIZKAIA.pdf>

⁴ Mutualisten, Kooperatiben eta Elkarteen Jardueren Lotura Nazionalaren Batzordeak (CNLAMCA), Frantzia eraturakoak, definizio hori onartu zuen 1982an, "Ekonomia Sozialaren Gutuna" delakoan.

⁵ Kooperatiben, Mutualitateen, Elkarteen eta Fundazioen Europako Batzordearen Aholku Batzordeak azpimarratutako oharak.

⁶ Hemen erabilitako terminologiaren arabera: CLAVES, R. eta MONZÓN, J.L. *Ekonomia social y sector no lucrativo: actualidad científica y perspectivas*. Revista CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa, 2001, 37. zk., 7-33. or.

- Merkatu mailako produkzio-erakunde pribatu guztiak, merkatuaren bidez bazkideen beharrak asebetetzeko sortutako enpresak (ondasunak eta zerbitzuak sortuz, bermatuz edo finantzatuz). Horietan, onuraren banaketa eta erabakiak hartzea ez daude elkartutako pertsona bakoitzak (bakoitzari boto bat dagokio) egindako kapital-ekarpenarekin zuzenean lotuta; hau da, antolaketa demokratikoa duten enpresak eta irabazien banaketa bazkideak egindako kapital-ekarpenarekin lotuta ez dagoena. Hauez ari gara hizketan: *kooperatibak, mutualitateak, lan-sozietateak... edo baita estatutuetan irabazia ez maximizatzeke helburu sozialak definitzen dituzten merkataritza-sozietate tradizionalak ere...*
- Familien zerbitzura egonik merkatukoak ez diren produkzio-erakunde pribatu guztiak, hau da, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak, produkzio-jarduera egin arren, salmentara bideratu gabeko zerbitzuak ekoizten dituztenak (produkzioa, gehienetan, doan edo ekonomikoki batere adierazgarriak ez diren prezioetan hornitzen da) familia talde jakinetarako, eta horien baliabide nagusiak familiek, kontsumitzaile gisa, egindako borondatezko ekarpenetatik, administrazio publikoen ordainketetatik eta jabetza-errentetatik datoz. Hauez ari gara hizketan: *personei zerbitzuak eskaintzen dizkieten elkarteak, fundazioak...*

Irabazi Asmorik Gabeko Sektorearen ikuspegia, nazioarte mailan, mundu akademikoan, Lester Salomon-en proiektuaren inguruan dago gauzatuta Johns Hopkins-en Unibertsitateko Gizarte Zibilerako Ikasketa Zentroaren bidez. Espainian, azterketa-ildo horren baitan, Olabuenaga⁷ irakasleak zuzendutako lanak nabarmendu behar dira. Era berean, aintzat hartu behar da premisa horiek onartu dituztela Kataluniako Hirugarren Sektorearen Behatokiak⁸ eta Luis Vives Fundazioak⁹ egin berri dituzten adierazgarritasun handieneko sektoreari buruzko diagnostikoeak.

Horrela, ***Irabazi Asmorik Gabeko Sektorearen*** baitan, hauek hartu beharko lirateke kontuan:

- Merkatukoak ez diren ekoizle deitutako erakundeak, pribatuak, familien zerbitzura daudenak, hau da, administrazio publikotik kanpoko erakunde pribatuak, irabazi-asmorik gabeak eta produkzio-jarduera garatzen dutenak, baina beren baliabide nagusiak ez datozenak merkatuko ondasunen eta zerbitzuen salmentatik, eta salmenta hori ez denean jarduera nagusia. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira ("non profit organization" ikuspegiarekin); horien jarduera "irabazirik gabekotzat" har daiteke (merkataritza-izaera argirik gabe). Oro har, hauek izan ohi dira: *fundazioak, elkarteak...*
- Familiei zerbitzua ematea helburu ez duten erakundeak, hau da, produkzio-jarduera garatzen ez dutenak (ez dituzte zerbitzuak eskaintzen); izan ere, funtzio ordezkagarria, aldarrikatzailea eta eskubideen defendatzailea dute. Oro har, hauek izan ohi dira: *fundazioak, elkarteak...*

Eta oro har, kanpoan geratuko lirateke hauek: *kooperatibak, mutualitateak, lan-sozietateak, merkataritza-sozietateak... baina baita irabaziak banatu ez arren (nahiz eta alderdi horrek identifikatzeko zailagoak diren ñabardurak izan) baliabide nagusiak egindako salmentetatik ateratzen dituzten fundazioak edo elkarteak ere.*

⁷ RUIZ OLABUÉNAGA, J.I. (DIR). *El Sector No Lucrativo en España*. Bilbo: Fundación BBVA Fundazioa, 2000 eta RUIZ OLABUÉNAGA, J.I. (DIR). *El Sector No Lucrativo en España. Una visión reciente*. Bilbo: Fundación BBVA Fundazioa, 2006

⁸ HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2013ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2013 eta HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2011ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2011 eta HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2009ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2009 eta HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore zibiko-sozialaren Liburu Zuria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2003.

⁹ FUNDACIÓN LUIS VIVES, EDIS, S.A. *Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Urtekaria 2012*. Madril. Fundación Luis Vives, 2012; FUNDACIÓN LUIS VIVES, EDIS, S.A. *Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Urtekaria 2010*. Madril. Fundación Luis Vives, 2010

Bestalde, praktikan, erakunde “mistoak” ere badaude, esate baterako, gizarte-ekimeneko kooperatibak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek parte hartutako gizarteratze-enpresak. Era berean, erakunde-eredu berriak ari dira sustatzen, “gizarte-enpresarena”, esaterako. Hala ere, lege-ikuspegitik, oraindik ez dute forma juridiko zehatz bat.

Ikuspegi alderatua:

Ekonomia Sozialaren ikuspegitik Hirugarren Sektorea sektore kapitalistaren eta sektore publikoaren arteko alternatibatzat hartzen den bitartean, Irabazi Asmorik Gabeko Sektorearen ikuspegitik, merkatuaren eta Estatuaren arteko arloa da.


Ikuspegi horretatik, Ekonomia Sozialaren kontzeptua alderdi ekonomikoan eta merkataritza alderdian gehiegi oinarritzen da eta albo batera uzten ditu sektoreko zenbait erakunde garrantzitsu; hau da, produkzio-jarduera garatu ez arren (ez dute zerbitzua eskaintzen), funtzio ordezkagarria, aldarrikatzailea eta eskubideen defendatzailea badutenak (dimentsio soziopolitikoak, herritarren partaidetza bideratzen dute eta abar).

Neurri batean, Irabazi Asmorik Gabeko Sektoreak ez ditu merkatuaren legeak jarraitzen. Interes orokorreko helburuekin, aldaketa da motibazio nagusia, baina ez du gobernatzeko boterea bilatzen; izan ere, neurri handi batean, zerbitzuak aurkitzen du bere esentzia eta izateko arrazoia. Ikuspegi horretatik, Hirugarren Sektorekoak definitzean ez lirateke sartuta egongo merkatuko sektoreko erakundeak; hau da, orientazio eta ekarpen sozial nagusia merkatuko ondasunen eta zerbitzuen salmenta dutenak (helburua aintzat hartuta, jarduera nagusiki “irabazizkoa” duten erakundeak, irabazi-asmoa duten ala ez duten kontuan hartu gabe).

Baina gainera, ikuspegi horrek erakundeen “irabazi-asmorik gabekoa” izate horren bigarren ikuspegia nabarmentzen du eta erakundeek eskatzen die irabaziak ezin dituztela bertako kideen artean banatu. Azken finean, aurrez adierazitako terminoetan, hori da Ekonomia Sozialarekin alderatuta dagoen alde nagusietako bat.

Alderantziz, ekonomia sozialaren ikuspegitik, fundazioek beren izaeratik eratorritako zailtasunak izan ditzakete praktikan erakunde demokratikoko printzipioari edo irizpideari erantzuteko. Hala ere, stakeholders-en parte-hartzea susta dezakete, eta bereziki, pertsona erabiltzaileena edo beren ekintzaren hartzailak direnena eta borondatezko eta ordainpeko langileena, horiek izanez gero.

Horrekin guztiarekin, Irabazi Asmorik Gabeko Sektorearen kontzeptuan, lehendik aipatutako Ekonomia Sozialaren kontzeptupean biltzen ziren erakundeetako batzuk baztertzeko dira (irabazi-asmorik eduki ez arren, irabaziak banatzen dituzten erakundeak eta irabaziak banatu ez arren, merkatuan jarduten duten erakundeak, izateko arrazoia horretan oinarritzen dutenak), baina bestalde, kontzeptu horretan lekurik ez zuten zenbait erakunde barne hartzen dira (merkatuan jarduten ez duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak).



Aipatutako gogoeta-prozesua amaitu ostean, Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiak, Espainian sektoreari buruz egindako aurreko lanek nagusiki hartutako ikuspegiarekin bat etorri -Hirugarren Sektorea, Irabazi Asmorik Gabeko Sektorearen ikuspegitik-, **Hirugarren Sektorea** honela definitu zuen: **gizarte zibilaren alde egindako ekimenek osatutakoa, kudeaketa- eta independentzia-autonomiarekin, irabazi-asmorik gabekoa, eta oro har, borondatezkoa. Jarduera, zentzu zabalean, esku-hartze sozialera bideratzen dutenak. Horrek esan nahi du gizarte-ingurunearen hobekuntza dutela helburu, jarduera garatzen duten lurralde zehatz batean eta batetatik, oso arlo desberdinetatik.**

Definizio hori unean uneko errealitatea deskribatzeko oinarritzeko diren irizpideez osatzen da:

1. egindako ekimenak
2. aktiboan
3. gizarte zibiletik sortutakoak
4. hirugarren sektorekotzat hartzen ez diren erakundeei dagokienez kudeaketa-autonomia eta independentzia mantentzen dutenak: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak
5. irabazi-asmorik gabekoak
6. oro har, borondatezko langileak
7. esku-hartze sozialekoak zentzu zabalean. Horrek esan nahi du oso alderdi desberdinetatik inguru soziala hobetzea dutela helburu: gizarte-ekintza, kultura, garapenerako lankidetzak, giza-eskubideak, osasuna, aisialdia eta denbora librearen enplegua, ingurumena eta abar.
8. jarduera lurralde zehatz batean eta batetatik garatzen dutenak.

Hirugarren irizpideak "gizarte-ekimeneko erakundeez" hitz egiten du. Horrek esan nahi du gizartetik sortzen direla, herritarren ekimen asketik, sorburu duten gizarteari erantzunak eskaintzeko. Batzuetan, eragina jasandako pertsonak, familiak, taldeak edo komunitateak dira ekimen horiek sustatzen dituztenak. Ildo horretatik, erakunde horiek herritarrek antolatutako parte-hartze sozialerako bidea dira.

Bosgarren puntuari dagokionez, garrantzitsua da nabarmentzea balizko irabazi oro helburuan berriz inbertitzeko joera, Hirugarren Sektoreko erakundeek kasuan, konpromisoaz gain, figura juridikotik eratorritako obligazioa ere badela, identitatearekin eta jardueraren helburuarekin koherentea.

Seigarrenez, nabarmendu da Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak herritarren solidaritatearen adierazpen antolatua direla, eta neurri batean behintzat, borondatezko ekarpenean eusten dira (erakundeek lana egiteko ordainpeko langileak izaten dituzten kontuan hartu gabe edota borondatezko pertsonen inplikazioarekin, sektoreko figura juridiko gehienetako gobernu-organoetako kideek borondatezko pertsonen osatuta egon behar dute legez).

Zazpigarren puntua gizarte-ingurunea hobetzeko helburuari buruzkoa da; izan ere, erakunde horiek, formalki erakundearekin lotutakoez harago hirugarren pertsonen (formalki erakundearekin lotutakoez harago) eta komunitatearen (oro har) bizitzako baldintzak hobetzea lortu nahi dute. Gainera, nabarmendu behar da Hirugarren Sektoreko erakundeek bereizgarria dela sortzen diren eta zerbitzua ematen dieten pertsonekin eta gizartearekin etengabeko konpromisoa mantentzea. Horrek bermatzen du ez daudela egoerei lotuta eta ez dituela interes ekonomikoak gidatzen, gizartearen hobekuntzak eta herritarren eskubideek baizik.

Badirudi garrantzitsua dela "esku-hartze sozialekoa zentzurik zabalenean" adierazpena testuinguruan kokatzea eta Hirugarren Sektorea Hirugarren Sektore Sozialarekin ez nahastea; izan ere, lehenengoa "behar sozialei" erantzuten eta azken finean herritarren (oro har hartuta) bizitza maila hobetu dadin laguntzen lan bikaina egiten duten erakundeek osatzen dute. Ez du zertan arrisku-egoeran edo bazterketa-, babesgabeketa- edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bizitza hobetzea helburu izan behar. Hori bigarreneko erakundeek kasuan gertatzen da.

Hartzaileak diren pertsonekin eta taldeekin izandako konpromiso horrek adierazten du ekimenak gertatzen diren lurralde jakinarekin konpromisoa mantentzen dutela. Hori zortzigarren puntuarekin lotzen da, Hirugarren Sektoreko erakundeez hitz egiten duenean honela zehazten baititu: "kokatutako" eta lurraldean finkatutako erakundeak, ezaugarriak ezagutzen dituztenak, beste erakundeekin eta instituzioekin elkarlanean aritzen direnak eta presentzia egonkorra mantentzen dutenak. Oinarri soziala ere (boluntariora, bazkideak diren pertsonak, elkarlanean aritzen direnak...), gehienbat, lurralde horietatik dator.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da azkenean definizioan txertatzea erabaki zen irizpideen artean batek zalantza handiak sortu zituela eta sektoreak berak heltze-prozesuan zehar bere buruaren gainean egingo duen gogoetaren eta elkarrizketaren bidez konpontzea aurrez ikusten duten gaietako bati dagokiola. Erakundeek Hirugarren Sektorekoak ez diren erakundeei dagokienez independentzia eta beren kudeaketa-autonomia mantentzeko beharra aintzat hartzea, hain zuzen ere. Hau da, erakunde hauek baztertzea: zentzu zorrotzean herritarren ekimen libretik sortuak ez izatea ezaugarri dutenak, baizik eta merkatu-esparruko erakundeek, administrazio publikokoek edo eragin-gaitasun handiko eragile sozialek (hala nola alderdi politiko eta sindikatuek) sortu dituztenak eta kontrolatzen dituztenak.

Esan liteke ez zela aho bateko adostasunik egon autonomia- eta independentzia-gabezia hori duten erakunde horiek modu argian eta zuzenean identifikatzeko adierazleak zehazteko orduan eta argitu gabe dago oraindik gainerako irizpideak bete ostean irizpide hau betetzen ez duten erakundeek multzo homogenea osatzen duten ala ez. Erakunde horietako batzuk ez dira Hirugarren Sektore gisa aitortzen, baina beste kasu batzuetan, ez da hain garbi ikusten horien jardura Hirugarren Sektoreari buruz aipatutako definizioarekin bat datozen erakundeen jardueratik oso desberdina denik. Horrekin guztiarekin, horri buruz eztabaida irekia eta, ondorioz, irizpidearen erlatibotasuna dagoela onartuz, Behatokiak erabaki zuen Hirugarren Sektoreko definizioaren beste irizpide bat balitz bezala onartzea; izan ere, egun sektoreko erakunde garrantzitsu batzuek partekatzen duten ideia ordezkatzeko du, hain zuzen ere, sektoreko kide izatea tradizioz zalantzan egon ez denekoa edo argiena izan denekoa.

Bestalde, irizpide gorabeheratsu horrekin lotuta, adierazi beharra dago kudeaketa-autonomiaz eta independentziaz hitz egiten denean bost eragile argi identifikatzen direla eta horiekin lotuta beharrezkoa da hauek egotea: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxa, alderdi politikoak eta sindikatuak. Hala ere, bada beste eragile bat ere: eliza, eta hori zalantzan jartzen da. Horri buruzko zalantzek alde batera utzi ezin den errealitatea osatzen dute, gure lurraldeko Hirugarren Sektorean benetan adierazgarriak diren erakunde askok elizarekin zuzenean lotutako jatorria edukitzea, esate baterako. Ildo horretatik, Behatokitik, errealitate hori errespetatzearen alde egin da, betiere, jarduerarako koherentzia bermatze aldera.

Hirugarren Sektore Sozialaren definizioa:

Askotan nahasten diren arren, Hirugarren Sektorearen baitan azpisektore espezifikoak bereizi behar da. Azpisektore horri Hirugarren Sektore Soziala edo Gizarte Ekintza deitu izan zaio, sektoreko erakundeen multzoan garrantzi kuantitatibo eta kualitatibo handia duen azpisektorea.

Hirugarren sektore sozialeko erakundeak aurretik adierazitako ezaugarri berberekin definitzen dira, baina badute bereizgarri bat sektoreko gainerakoetatik: haien jarduna gizarteko talde zaugarrietara (bazterkeria-arriskuan) eta baztertuetara bideratua da, eta haiexekin egiten dute esku-hartze soziala (haien xedea izan liteke bazterkeria-prozesuak prebenitzea, arintzea edo zuzentzea, baina baita gizarteratzeko eta partaidetza sozialeko prozesuak sustatzea ere, bai gizarte-zerbitzuen esparrutik, bai esparru soziosanitario, soziorabial, sozioedukatibo edo soziokulturaletik).

Gizarte-ekintzako GKE-en plataformak (POAS, gaztelaniazko akronimoaren arabera) honako definizio hau bildu zuen 2006ko plan estrategikoan¹⁰, eta indarrean jarraitzen du 2013-2016

¹⁰ GIZARTE EKINTZAKO GKE-EN PLATAFORMA. *Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko I. Plan Estrategikoa, 2007-2010*. Madril: Gizarte-ekintzako GKEen Plataforma, 2006, 13. or.

aldirako azkenekoan ere¹¹: Gizarte-ekintzako hirugarren sektoretzat hartzen da borondatezko eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuz osatutako esparrua, zeinak, herritarren ekimen askearen bidez osaturik, modu autonomoan eta solidarioan aritzen baitira; hala, interes orokorreko ekintzen bitartez, saiatzeko dira eskubide sozialen aitortza eta gauzapena sustatzen, kohesio soziala eta gizarteratzea lortzen dimentsio guztietan, eta kolektibo sozial jakin batzuk ongizate-maila onargarrietatik baztertuta ez uzten. Luis Vives fundazioak, *Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko urtekariaren arduradura*¹² bera, definizio hori bera hartu zuen.

Kataluniako Hirugarren Sektorearen Behatokiak, *Kataluniako hirugarren sektore sozialaren 2009ko Urtekarian*¹³ (eta 2011 eta 2013ko osteko bertsioetan ere bai)¹⁴ adierazten du hauek direla hirugarren sektore sozialeko erakundeak: formalki osatuak, pribatuak eta irabazi-asmorik gabeak, haien egitekoa edo jarduera nagusia pertsona sustatzera eta zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboak gizarteratzera bideratzen dutenak, eta, horretaz gainera, gizarte-ekintza lurraldearekin edo ingurunearekin gertutasun-printzipioz gauzatzen dutenak.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren lanean (*Bizkaiko hirugarren sektore sozialaren diagnostikoa*¹⁵, 2011n argitaratua), Kataluniako hirugarren sektore sozialaren Urtekarian eginiko definizioaren oso antzeko bat egin zen, eta, aldi berean, gizarte-ekintzako GKE-en plataformak ematen duenaren tankerakoa. Hala, espazio zabala definitzen du, eta, aldi berean, besteekiko behar adina mugatua (hirugarren sektore kulturala...). Honela definitu zuen hirugarren sektore soziala: pertsonen gizarteratzea eta sustapena erdietsi nahi duten hirugarren sektoreko erakundeek osatutakoa. Horretarako, "arlo, sistema eta politika sozialekin"¹⁶ zerikusia duten jarduerak garatzen dituzte, gizarte-eskubideen gauzatze eraginkorra ahalbidetzera eta pertsonak ongizate sozialera txertatzera bideratuta, bazterkeria- edo zaurgarritasun-egoerei aurre egin behar dietenei arreta berezia jarriz.

Ondoren, Behatokiak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean jasotako definizioa hartu zuen. Haren arabera, **hirugarren sektore soziala**¹⁷ **osatzen duten erakundeek honako ezaugarri hauek dituzte: legezko egitura eta nortasun juridikoa dute, eta beren figura juridikoari dagokion erregistroan inskribatuta daude; borondatezko ekintzakoak dira; irabazi-asmorik ez dute; pribatuak dira eta beren burua gobernatzeko eta kudeatzeko dute; egoitza Euskadin dute eta jarduera Euskadin gauzatzen dute; eta helburu nagusia dute sustatzea inklusio soziala, garapenerako lankidetzeta eta zaurtasun-, bazterketa-, ezberdintasun-, babesgabetasun- edo mendetasun-egoeran dauden pertsona, familia, kolektibo edo komunitateen eskubideen erabilera efektiboa; horretarako, esku-hartze sozialeko jarduerak gauzatzen dituzte, eta halakotzat hartzen dira zerbitzu sozialak, enplegurako sarbidearen sustapena eta pertsona horien inklusio soziala bultzatzeko jomuga duen beste edozein jarduera, barruan sartuta esparru, politika eta sistemen elkarreragin-guneetan xede horrekin gauzatutakoak, esate baterako gune soziolaboralean, soziohabitazionalan, sozioedukatiboan, soziosanitarioan, soziojudizialean edo soziokulturalean, edo beste batzuetan.**

¹¹ GIZARTE EKINTZAKO GKE-EN PLATAFORMA. *Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko II. Plan Estrategikoa, 2013-2016*. Madril: Gizarte-ekintzako GKEen Plataforma, 2012, 1. or.

¹² LUIS VIVES FUNDAZIOA, EDIS, S.A. *Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko urtekaria, 2012*. Madril: Luis Vives fundazioa, 2012.

¹³ HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako hirugarren sektore sozialaren 2009ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2009.

¹⁴ HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako hirugarren sektore sozialaren 2013ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2013, eta HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako hirugarren sektore sozialaren 2011ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2011.

¹⁵ BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREKO BEHATOKIA. *Bizkaiko hirugarren sektore sozialaren diagnostikoa*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia, 2011

¹⁶ Demetrio Casadok honako sailkapen hau proposatzen du, "sistema edo politika sozial" izenez deitzen direnei buruz: osasun-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, lanaren gizarte-babesa, errenta-asegurua eta -subsidiuak, etxebizitzaren babes soziala eta gizarte-zerbitzuak.

Halaber, adierazten du komenigarria dela ohartaraztea hainbat egile eta erakundeek "gizarte-zerbitzuak" terminoaren esanahi zabala hartzen dutela, haren bidez zenbatutako sei adarren multzoa izendatzen duten aldetik. Halaber, adierazten duenez, "konbentzio terminologiko hori onartzen duten batzuek –nahiz eta haiek bakarrik ez izan– seigarren adarrari 'gizarte-zerbitzu pertsonal' deitzen diete, izenondo horrekin multzoaren eta multzoko elementu baten arteko nahastea saihesteko". In *EAEko gizarte-zerbitzuen sistema publikoko egoera eta ikuspegia. Eztabaidarako txostena*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2005, 41. or.

¹⁷ EUSKO JAURLARITZA. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 943. zk., 2016ko maiatzaren 19koa.)

Ez da samurra hirugarren sektore sozialaren mugak zehaztea; izan ere, gizarte-ekintzan (zentzu zabalean ulerturik, gizarteratzea sustatze gisa) eragile askok eta askok parte hartzen dute –haietako batzuk hirugarren sektore sozialekoak dira, baina beste batzuk ez–. Alde batetik, gizarte-ekintza jarduera nagusitzat ez baina jarduera osagarritzat dutenak, hala nola kulturarekin, kirolarekin edo ingurumenarekin lotutako lanetan jarduten dutenak, eta gizarte-ekintzan ari daitezkeenak programa jakin batean, nahiz eta haien xede nagusia izan ez eta haien egitekoan jasota egon ez. Bestetik, gizarte-ekintza egiten duten irabazi-asmoko enpresen munduko erakundeak ditugu (adibidez, mendekotasuna duten pertsonekin lan egiten dutenak, haur eta gazteekin aritzen direnak, enpresetako gizarte-ekintzako programak, boluntarioritza korporatiboa...), eta sektore publikoak gauzatzen duen gizarte-ekintzaren alorra.

Nolanahi ere den, hirugarren sektore sozialeko erakundeek, haien jarduera nagusia gizarte-ekintza izanik, bestelako jarduera mota batzuk ere gauza ditzakete, hala nola kulturarekin edo ingurumenarekin lotuak.



Iturria: Kataluniako hirugarren sektore sozialaren 2013ko urtekaria.

Hori dela eta, hirugarren sektore soziala definitzean, hari dagokion espazioa mugatzeaz gain, garrantzitsua da erakundeen esku-hartzeko eredua konfiguratzeko erabakiak erabakitzea eta kontuan izatea. Funtsezkoa da hirugarren sektore sozialeko erakundeen erabakiak definitzea eta, hori egitean, esku-hartzeko ereduarekin lotutako alderdiak kontuan edukitzea, erabakiak jakin batzuk betetzen dituen jarduna gordetzeko. Besteak beste, arrazoi hauengatik:

- Erakundeak lurralde, komunitate edo kolektibo jakin batekin lotzea (iraunkortasuna);
- Pertsonen, familiei, komunitateei eta gainerakoei lagun egitea, ikuspegi integralarekin – beharrezkoak kontuan izanik, pertsonari eta testuinguruari egokitutako arreta eskainiz, eta/edo beste hainbat alor bil ditzakeen jarduerak eta bitartekoak konbinatuz, hala nola hezkuntza, osasuna eta abar–, denboran jarraitutasunez –baita bizitza osoan ere, beharrezkoa denean– eta modu pertsonalizatuan –pertsona ardatz izanik eta kasuan-kasuan egokituz–;
- Eragindako pertsonen, boluntarioen, ordaindutako langileen eta abarren arteko partaidetza artikulatzea, erakundeen jardunean eta barne-bizitzan.

Bestalde, hirugarren sektore soziala historikoki aldaketak izan ditzakeen sektorea da, baina ez ditu albo batera uzten bigarren mailako sare eta erakundeetan bat egiten ari diren esparruak: haurrak eta gazteak, adinekoak, emakumeak, etorkinak, desgaitasunen bat duten pertsonak, gaixotasunek eragindako pertsonen eta haien senitartekoen elkarteak, etxerik gabeko pertsonak gizartean eta lanean txertatzen diharduten erakundeak, bazterkeria-egoerak dituztenekin dihardutenak, adikzioetatik eratorritako arazoekin lan egiten dutenak...


Erakundeen definizio-erabakiak izan ohi da beren jarduna pertsonetara, familietara eta egoera jakin bateko taldeetara bideratzen dituztela (langabezia, bazterkeria-egoera edo -arriak, gaixotasuna, desgaitasuna...), edo baldintza jakin batera (adina, sexua, jatorria); hala ere, maiz zeharkako jarduerak gauzatu ohi dute erantzukizun publikoko esparru edo sistema batzuekin eta besteekin, zabaltasun-maila gutxi-askorekin. Hau da, erakunde batek esparru batean baino gehiagotan jardun dezake, nahiz eta bakarrean kokatuta egon. Hori gertatzen da, konparazio

batera, emakumeen, adinekoen eta etorkinen elkarteekin, haien jardunak zeharkakoa izan beharko bailuke definizioz. Edo desgaitasunen bat duten pertsonen erakundeekin; izan ere, maiz, enpleguan, gizarte-ekintzan eta osasunean jarduten dute, baina baita hezkuntzan ere (esaterako, desgaitasun intelektualak dituzten pertsonak eta haien familiak).

Hirugarren sektore sozialaren barruan, posible da, era berean, gizarte-ekintzako beste esparru espezifiko batzuk bereiztea, zentzu hertsiagoan ulertuz. Ikuspegi horretatik, **gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak**¹⁸ lirateke gizarte-zerbitzuen esparruan zehazki jarduten dutenak eta, betiere esparru horretatik bertatik, gizarte-zerbitzuek eta bestelako esparruek bat egiten duten arloetan jarduten dutenak: espazio sozioedukatiboa, soziosanitarioa, soziolaborala, soziokulturala eta abar. Hau da, haien estatutuetan, gizarte-zerbitzuak eskaintzea dute xede.

Zerbitzuak hornitzea erakundeon jardunaren zati garrantzitsua da, gainerako funtzioen osagarri baita (hala nola sensibilizazioa, eskubideak salatzea eta sustatzea, boluntariotza soziala eta/edo elkarrekiko laguntza sustatzea, edo bestelakoak); hala, beren egitekoan, beren jardunaren xede diren pertsonen eskubideak modu efektiboan egikaritzea bilatzen dute, beren bizitza-proiektuak ahalik eta autonomia maila handienarekin garatu ahal izateko. Zerbitzuen hornidura izan da "bitarteko nagusia beharriaz erantzuteko eta, aldi berean, eskubideak eskatzeko eta eraikitzeko, ekimen publikoaren lankidetzarekin, harik eta erantzukizun publikoko eta ekimen partekatuko gizarte-zerbitzuen sistema bat sendotu arte".

Zehazkiago esateko, gizarte-zerbitzuek beren jarduna pertsona guztiak ahalik eta autonomia handienarekin gizarteratzera bideratzen dute, haien gaitasunak sustatuz eta beharrezko laguntzak eskainiz gizartearen txerta daitezen, eta gauza izan daitezen mendekotasunei, bazterkeriari, babesgabetasunari edo bestelako arriskuei aurre egiteko, izan arrisku hori iraunkorra edo bizitzaren une jakin batekoa¹⁹.



¹⁸ Kontuan izan behar da batzuetan terminologia hori erabiltzen dela, hemen "hirugarren sektore sozial" terminoarekin atxikitako kontzeptuari erreferentzia egiteko.

¹⁹ Alde horretatik, beharrezkoa dirudi definizioa doia egitea gizarte-zerbitzuetako xedeari buruz, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskadiko Legeak ezartzen duenaren ildo beretik.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

EUROPAKO BATZORDEA. *Batzordeak Europako Parlamentuari, Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Eskualdeen Batzordeari egindako komunikazioa. Gizarte-ekintzailatzaren aldeko ekimena. Gizarte-enpresak ekonomia eta berrikuntza sozialen erdigunean jartzea sustatzeko ekosistema bat eratzea*. COM (2011) 682 azkena.

FUNDACIÓN LUIS VIVES, EDIS, S.A. *Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Urtekaria 2010*. Madril. Fundación Luis Vives fundazioa, 2010.

FUNDACIÓN LUIS VIVES, EDIS, S.A. *Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Urtekaria 2012*. Madril. Fundación Luis Vives fundazioa, 2012

EUSKO JAURLARITZA. 6/2016 Legea, maiatzaren 12, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 943. zk., 2016ko maiatzak 19).

HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore zibiko-sozialaren Liburu Zuria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2003.

HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2009ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2009.

HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2011ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2011.

HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2013ko urtekaria*. Bartzelona: Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia eta Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2013.

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Hirugarren Sektorearen definizioa bilatzeko prozesua Bizkaian*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2010. Webgunean eskuragarri: <http://ideafix/Externo/ASPNET/Web_3sbizkaia/Editor/Archivos/Docs/PROCESO%20DE%20B%20C3%9ASQUEDA%20DE%20UNA%20DEFINICI%20C3%93N%20PARA%20EL%20TERCER%20SECTOR%20EN%20BIZKAIA.pdf>

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren diagnostikoa*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2011.

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Hirugarren Sektoreko urtekaria* Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2011.

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2010.

GIZARTE EKINTZAKO GKED-REN PLATAFORMA. *Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen I. Plan Estrategikoa 2007-2010*. Madril. Gizarte Ekintzako GKEren plataforma, 2006.

GIZARTE EKINTZAKO GKE-REN PLATAFORMA. *Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen II. Plan Estrategikoa 2013-2016*. Madril. Gizarte Ekintzako GKEren plataforma, 2012.

RODRÍGUEZ CABRERO, G. ETA MARBÁN, V. *Visión Panorámica del Tercer Sector Social en España*, hemen: Revista Española del Tercer Sector, 9. zk. Fundación Luis Vives fundazioa, Madril, 2008. Aldizkaria webgunean online eskuragarri: <<http://www.fundacionluisvives.org/servicios/publicaciones/rets/index.html>>

RUIZ OLABUÉNAGA, J.I. (DIR). *El Sector No Lucrativo en España*. Bilbo: Fundación BBVA fundazioa, 2000

RUIZ OLABUENAGA, J.I. (DIR). *El Sector No Lucrativo en España. Una visión reciente*, Fundación BBVA Fundazioa, Bilbo, 2006.